


Gaur egungo hezkuntza ereduaren garrantzitsua den balio bat komunikazio eraginkorra da. Familia, hezitzaile eta haurrak elkareraginean ibili behar dira, haurraren garapenean eragin positiboa izateko. Komunikazioak duen benetako garrantzia adierazteko, [El mundok](#) argitaratutako artikulua batean oinarritu gara.

Artikulu honetan, hezitzaile-familia arteko komunikazioa eta elkarlanaren garrantziaz hitz egiten da. Familiak eta hezitzaileak batera doazen giro batean egoteak, haurren autoestimua areagotzen du, haien beharrak goiz detektatzen laguntzen du. Honek, haurraren ikaskuntzan eta garapenean jarraitutasuna ziurtatzen du eta sor daitezkeen arazoak azkar eta eraginkortasunez konpontzen laguntzen duela aipatzen da.

Haur hezkuntza ikasten ari garen heinean, hezitzaileak izateko prestatzen ari gara eta 2024ko irailean praktikak egin genituen hainbat eskoletan. Praktika hauetan, egokitzapen prozesua nolakoa den eta zelan kudeatzen den ikusteko aukera izan genuen. Helburua bete izan badugu ere, hainbat arazo hauteman ditugu, horietako bat komunikatzeko arazoak dira.



Hezitzaile-familia erlazioan arazoak daudela konturatu gara eta behin arazoa identifikatuta pentsatu dugu modu eraginkorrena hezitzaile familia komunikazioa hobetzeko **aplikazio** bat sortzea dela. Gaur egun, oraindik ere zentro askotan baliabideak falta dira komunikazio eraginkorra bermatzeko. Gure aplikazio berri honek, komunikazio etengabea eta esanguratsua izatea ahalbidetuko die. Helburua, ume bakoitzaren garapenarekin konektatuago, informatuago eta konprometituago egotea izango da, haurraren garapen integrala bultzatzeko.

Gure enpresaren balioak hurrengoak dira:

KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA	Irakasle eta familiaren arteko komunikazio eraginkor eta erraza ahalbidetzea bilatzen dugu. Horretarako, gure aplikazioak komunikazio kanal zuzena, argia eta ulerterraza izan behar du erabiltzaile guztientzat; gainera, hezitzaileen eta familien arteko komunikazio arina erraztu behar du, bi aldeek beren iritziak, kezkak eta abar adierazteko aukera izan dezaten ziurtatuz.
INTUITIBOA	Aplikazioak erabilerraza eta ulerterraza izan beharko du erabiltzaile guztientzat. Horregatik, diseinu intuitiboa izango du, irakasleen eta familien arteko komunikazio egokia eta eraginkorra ahalbidetuz.
ESKURAGARRITASUNA	Aplikazioak irisgarria izan behar da erabiltzaile guztientzat, gailu eta sistema eragile desberdinetara eta erabiltzaileen beharretara egokituz.
PERTSONALIZATUA	Erabiltzaileei aukera emango die jakinarazpenak, informazioaren bistaratzea eta tresnak beraien premien eta lehentasunen arabera egokitzeko, hezkuntza- eta familia-testuinguruen aniztasuna errespetatuz.
SEGURTASUNA	Pribatutasuna eta erabiltzaileen datuak babestea lehentasuna da, hezitzaileen eta familien artean partekatutako informazio guztia modu seguruan eta konfidentzian babestuta egongo dela bermatuz.